

**Jasangarritasun-eranskina**  
**Kontratu aurreko informazioa, 2019/2088 (EB) Erregelamenduaren 8. artikulua 1., 2. eta 2 bis**  
**zenbakietan eta 2020/852 (EB) Erregelamenduaren 6. artikulua lehen paragrafoan aipatzen diren**  
**finantza-produktuei buruzkoa**

**Inbertsio jasangarri** bat da ingurumen- edo gizarte-helburu batean laguntzen duen jarduera ekonomiko batean inbertitzea, baldin eta inbertsioak kalte esanguratsurik egiten ez badio ingurumen- edo gizarte-helburu bati eta inbertsioaren jomuga diren enpresek gobernantza oneko jardunbidbadituzte.

**EBren taxonomia** sailkapen-sistema bat da, 2020/852 (EB) Erregelamenduan jasotakoa, **ingurumen-ikuspegitik jasangarriak diren jarduera ekonomikoak** zerrendatzen dituena. Erregelamendu horrek ez du zerrendatzen gizarte-ikuspegitik jasangarria den jarduera ekonomikorik. Ingurumen-helburua duten inbertsio jasangarriak bat etor daitezke, ala ez, taxonomiarekin.

**Produktuaren izena:**  
ZORRO DELEGATUAK

**Erakunde juridikoaren identifikatzailea:**  
IFZ A95653077

### Ingurumen- edo gizarte-ezaugarriak

Inbertsio-helburu jasangarri bat du finantza-produktu honek?	
<input checked="" type="radio"/> <input checked="" type="radio"/> <input type="checkbox"/> <b>Bai</b>	<input checked="" type="radio"/> <input type="radio"/> <input checked="" type="checkbox"/> <b>Ez</b>
<input type="checkbox"/> <b>Ingurumen-helburua</b> duen gutxieneko <b>inbertsio jasangarri</b> kopuru bat egingo du: % ____	<input checked="" type="checkbox"/> Ingurumen- edo gizarte-ezaugarriak sustatzen ditu eta, helburua ez bada ere inbertsio jasangarri bat egitea, gutxienez inbertsio jasangarrien % <u>35</u> (e)ra helduko da
<input type="checkbox"/> EBren taxonomiaren arabera ingurumen-ikuspegitik jasangarritzat har daitezkeen jarduera ekonomikoetan	<input checked="" type="checkbox"/> ingurumen-helburu batekin, EBren taxonomiaren arabera ingurumen-ikuspegitik jasangarritzat har daitezkeen jarduera ekonomikoetan
<input type="checkbox"/> EBren taxonomiaren arabera ingurumen-ikuspegitik jasangarritzat har ezin daitezkeen jarduera ekonomikoetan	<input checked="" type="checkbox"/> ingurumen-helburu batekin, EBren taxonomiaren arabera ingurumen-ikuspegitik jasangarritzat har ezin daitezkeen jarduera ekonomikoetan
<b>Gizarte-helburua</b> duen gutxieneko <b>inbertsio jasangarri</b> kopuru bat egingo du: % ____	<input checked="" type="checkbox"/> gizarte-helburu batekin <input type="checkbox"/> Ingurumen- edo gizarte-ezaugarriak sustatzen ditu, baina <b>ez du inbertsio jasangarririk egingo</b>



#### Zer ingurumen- edo gizarte-ezaugarri sustatzen ditu finantza-produktu honek?

Zorro honek sustatzen ditu ingurumen- edo gizarte-ezaugarriak [2019/2088 Erregelamenduaren (EB) 8. art.].

Zorroak sustatzen ditu gizartearekiko inbertsio arduratsurako (GIA) irizpideak: finantza-irizpideez gain, kontuan hartzen dira ingurumen- eta gizarte-irizpideak eta gobernantza onari loturikoak.

**Jasangarritasun-adierazleak** neurtzen dute zer mailatan lortzen diren finantza-produktuak sustatzen dituen ingurumen- edo gizarte-ezaugarriak.

Zorroaren xedea da inbertsioak kudeatzea eta haren erabaki- eta kontrol-mekanismoen bidez, ziurtatzea inbertsioaren jomuga diren fondoek printzipio hauek bete eta sustatuko dituztela beren jardun-eremuan:

a) **Giza eskubideak eta lan-arlokoak errespetatzea:** Oinarrizko giza eskubide unibertsalak babestea eta errespetatzea, eta ez parte hartzea, ez zuzenean ezta zeharka ere, eskubide horien urraketan. Elkartzeko askatasuna errespetatzea, negoziazio kolektiborako eskubidea benetan aitortzea, behartutako lan-mota oro ezabatzen eta haurren lana desagerrarazten laguntzea, eta enpleguan diskriminazio-praktikak indargabetzen laguntzea. Genero-berdintasuna eta emakumeen nahiz nesken ahalduntzea bilatzea.

b) **Ingurumena eta biodibertsitatea zaintzea:** Ingurumena babesteko duen prebentzioa bultzatzea, ingurumen-erantzukizuna indartzen duten ekimenak sustatzea, eta ingurumena errespetatzen duten teknologien garapena eta hedapena bultzatzea. Isuriak murrizteko ahalegina Pariseko Akordioaren helburuarekin bat datorren ebaluatzea: batez besteko tenperatura globalaren igoera mantentzea 2 °C-tik behera industriaurreko mailen gainetik.

Babesa ematea *Task Force on Climate-Related Financial Disclosures* (TCFD) erakundearen gomendioei: lantalde horren zeregin da enpresek beren inbertitzaileei klima-aldaketaren arriskuei eta horiek kudeatzeko moduari buruzko informazioa eman diezaieten sustatzea, eta horrek laguntzen du areagotzen merkatuaren gardentasuna eta klimarekin lotutako arriskuen gaineko kontzientzia.

c) **Gobernantza Oneko politikak eta ustelkeriaren aurkako borroka:** Akziodunen eskubideak, gutxiengoarenak barne, errespetatuko dituen erakunde korporatiboa sustatzea. Enpresa-estrategia eta politikak gauzatzeko moduan egongo diren kudeaketa-organoak sustatzea, aintzat hartuko dituztenak kontrol eta oreka egokiak, ikuskapen independentea, alderdi interesdun garrantzitsuen inplikazioa, epe luzerako helburuekin lerrokatutako ordainsari-sistemak, eta estatuko lege eta kodeak betetzea. Ustelkeria-mota oro errefusatzea, estortsioa eta eroskeria barne, eta jarduera horietan ez parte hartzea, ez zuzenean ez zeharka.

d) **Jardunbide egokiak zerga-arloan:** Enpresen barruan zerga-politika arduratsuak ezar daitezzen sustatzea.

Gainera, NBEren Inbertsio Arduraturako Printzipioen sinatzaile den aldetik, Kutxabank Gestioneak, zorroa osatzen duten fondoek kudeatzaileak, bere politika ezartzeko esparru gisa hartu du mailaz maila aurrera egitea hurrengo epigrafeetan, ingurumeneko, gizarteko eta gobernantza oneko parametroak (IGG) txertatzeko inbertsio-jardunbide konbentzionaletan:

1. IGG irizpideak txertatzea inbertsioen prozesuan.
2. IGG faktoreak sartzea jabe modura definitutako jardunbide eta politiketan.
3. Gardentasuna erraztea IGG faktoreetan, eginiko inbertsioetan.
4. Bultzada ematea printzipio hauek finantza-sisteman garatzeari.
5. Batera lan egitea eta printzipio hauen inplementazio eraginkorra bultzatzea.
6. Informazioa ematea aldira printzipio hauen inplementazioan eginiko urratsei buruz.

## ○ **Zer jasangarritasun-adierazle erabiltzen dira finantza-produktu honek sustatutako ingurumen- edo gizarte-ezaugarri bakoitzaren lorpena neurtzeko?**

Zorroarentzat definitutako estrategiaren arabera, kontuan hartuko da zorroaren xedea inbertitu beharreko fondoak zehazteko. Aintzat harturik zorroan dauden fondoak Kutxabank Gestionean fondoak direla, fondo horiek ondorengo irizpideak eta dagozkien adierazleak erabiltzen dituzte, aktibo-tipologia bakoitzera egokituak bada ere:

1. **Baztertzailak:** Fondoek ez dute inbertituko arma eztabaidagarrien (pertsonek kontrako minak, barreiatze-bonbak, armamentu kimikoa edo biologikoa...) ekoizpenari lotutako aktiboetan, edo ingurumen-kalte larri-larriak, konponbide-neurririk hartu gabe, eragiten dituzten armen ekoizpenari loturikoetan. Gainera, ez da inbertituko erakunde jaulkitzaileetan, baldin eta lotura badute ustelkeria larriko jardunbideekin, adingabeen esplotazioarekin edo gerrek edota gatazkek eragindako norbanakoaren eskubideen urraketarekin; ezta egoitza paradisu fiskal batean duten jaulkitzaileekin ere.
2. **Baloraziokoak:**
  - 2.1. **Jaulkitzaileen ebaluazioa IGG irizpideetan (ingurumena, gizartea eta gobernu korporatiboa).** Fondoek erabiltzen dute inbertsioak hautatzeko *best in class* metodologia, kontuan izanik adierazle batzuk. Horretarako, kudeatzaileak IGG rating bat esleitzen die inbertitzen duen edo inberti dezakeen jaulkitzaileei. Prozesu horretan, kudeatzaileak aztertzen du jaulkitzaileen jarduera, honako adierazle hauek erabilia, eta pisu bat edo beste ematen die, kontuan izanik zer eremu geografikotakoak diren:
    - 2.1.1. **Errenta finko pribatu eta errenta aldakorreko inbertsioetan:**
      - **Ingurumen-alorrean:** karbono-intentsitatea [berotegi-efektuko gasen (BEG) guztizko intentsitatea, eskuragarri badago, edo karbono dioxidoaren (CO2) guztizko intentsitatea, berotegi-efektuko gasen tona metriko gisa kalkulatu, eskuragarri badago, edota CO2 isuria, enpresaren erreferentziazko monetan eginiko salmenten milioi bat diru-sarrera bakoitzeko], hondakinen intentsitatea (salmentek sortutako hondakinak, hondakin arriskutsu zein ez-arriskutsuen tona metriko gisa kalkulatu, enpresaren erreferentziazko monetan eginiko salmenten milioi bat diru-sarrera bakoitzeko) eta ur-intentsitatea (ur-erabilia guztizkoa, eskuragarri badago, edo ur-ateratzearen intentsitate guztizkoa, metro kubikoetan, enpresaren erreferentziazko monetan eginiko salmenten milioi bat diru-sarrera bakoitzeko).
      - **Gizarte-arloan:** Lan-gorabeherak, enplegatuen txandakatze-ratioa eta emakumeen ehunekoa Administrazio Kontseiluan.
      - **Gobernantza onaren alorrean:** kontseilari independenteen ehunekoa Administrazio Kontseiluan eta Auditoria Batzordean.
      - **Sustainalytics-en IGG ratinga.**

2.1.2. Jaulkitzaile publikoen kasuan, neurketa oinarritzen da Sustainalytics Country Risk Rating(1)-ean, birkalkulatu egiten dena are gehiago haztatuz esku hartzen duten IGG faktoreak:

- Ingurumen-arloan: Kapital naturala eta ekoitzia:
  - Energia eta klima-aldaketa: Beren karbono-intentsitatea murrizten eta karbono gutxiagoko munduranzko trantsiziorako prestatzen ari diren herrialdeek gaitasun handiagoa izango dute epe luzera aberastasuna sortzeko.
  - Baliabideen erabilera: Baliabideak modu jasangarrian erabiltzen dituzten herrialdeek aurreikuspen hobekak dituzte epe luzera aberastasuna sortzeko.
  - Gobernantza: Gobernantza eraginkorra duten herrialdeek eta zuzenbide-estatuak aukera gehiago dituzte kapital naturalaren eta ekoitziaren erabilera jasangarria eta zaintza bermatzeko.
- Gizarte-arloan: Giza kapitala:
  - Oinarritzko premiak: Giza kapitalaren garapena biztanleriaren oinarritzko premiei emandako erantzun-mailaren mende dago.
  - Osasuna eta ongizatea: Era berean, giza kapitala sor daiteke osasuntsu dauden biztanlerietan.
  - Ekitatea eta aukera: Pertsonak modu bidezkoan tratatzen dituzten ekonomiek, aukera berdinak ematen dituztenek (hezkuntza-aukerak barne), modu eraginkorragoan sortuko dute giza kapitala etorkizunean.
- Gobernantza onaren arloa: Kapital instituzionala:
  - Erakunde-sendotasuna: Erakundeen kalitateak, erregulazioek eta zuzenbide-estatuak eragin handia dute herrialde batek eskura dituen baliabideak eraginkortasunez erabiltzeko eta epe luzera aberastasuna sortzeko gaitasunean.
  - Eskubideak eta askatasunak: Zenbat eta handiagoa izan herritarren eskubide eta askatasunen babesa, orduan eta gehiago lagunduko dute aberastasuna sortzen.
  - Bakea eta egonkortasuna: Epe luzera aberastasuna sortzeko, bakea eta egonkortasun soziala/politikoak behar dira.

2.1.3. IKEen kasuan, fondoak bere inbertsioak bideratzen ditu Morningstar barometroan IGG puntuazio onena duten inbertsioetara.

Adierazle hauek alda daitezke esparru bakoitzean duten garrantziaren eta datuen estaldura erabilgarriaren arabera, bakoitzari pisu bat emanez, kontuan izanik jaulkitzaile bakoitzaren sektorearen faktore esanguratsuena.

2.2. Klima-aldaketari buruzko Pariseko Akordioaren helburuekin lerrotzea eta

2.3. IGG eztabaidak kudeatzea (Sustainalytics-en albisteetan eta eztabaiden bidez nagusiki).

## ● Zeintzuk dira finantza-produktuak zati batean bete nahi dituen inbertsio jasangarrien helburuak, eta nola laguntzen du inbertsio jasangarriak helburu horiek betetzen?

Zorroak neurri batean lortu nahi dituen inbertsio jasangarrien helburuak lotuta daude ingurumen- eta gizarte-gaiak hobetzen laguntzarekin, fondo jakin batzuetan inbertituz; hau da, Nazio Batuen Garapen Jasangarriko Helburuetan (GJH) zehaztutako gizarte- eta ingurumen-arazo nagusiak konpontzea helburu duten enpresetan inbertitzen duten fondoetan.

Zorroak, bere inbertsio jasangarriak zehazteko, zorroa osatzen duten fondoei buruzko informazioa erabiliko du. Horri dagokionez, Kutxabank Gestionez, zorroa osatzen duten fondoen kudeatzaileak, inbertsio jasangarritzat jotzen diren aktiboak identifikatzeko, kontuan izango du 2019/2088 (EB) Erregelamenduan jasotako inbertsio jasangarrien definizioa. Hala, inbertsio bat jasangarria izango da premisa hauetako bat betetzen badu:

- I. Jaulkitzaile/jaulkipen bat jasangarria izango da baldin eta haren jarduerak inpaktu esanguratsu bat badute GJHetan eta erakundeak kudeaketa orokor egoki bat egiten badu ingurumen-, gizarte- eta gobernantza-arloetan, baita berariaz helburu jasangarriak finantzatzen badira ere (bonu berdeak eta jasangarriak, bonu sozialak eta jasangarritasunari loturikoak...).
- II. Gainera, jaulkitzaile/jaulkipen bat jasangarria izango da baldin eta haren kudeaketa orokorra bikaina bada ingurumen-, gizarte- eta gobernantza-arloetan.



**Kontrako gorabehera nagusiak** dira ingurumenari, gizarteari, lanari, giza eskubideen errespetuari eta ustelkeriaren eta eroskeriaren aurkako borrokari lotutako jasangarritasun-faktoreei buruzko inbertsio-erabakien gorabehera negatibo garrantzitsuenak.

## Zer dela-eta ez diete finantza-produktuak zati batean gauzatu nahi dituen inbertsio jasangarriek kalte nabarmenik eragiten ingurumeneko edo gizarte- inbertsio jasangarriko helburuei?

Oro har, inbertsio jasangarrietan, ingurumen- edo gizarte-helburuei kalte esanguratsurik ez eragiteko printzipioa lotuta dago jasangarritasun-faktoreei buruzko inbertsio-erabakien kontrako gorabehera nagusien dibulgazioarekin (zorroak aintzat hartzen dituen faktoreak).

### ***Nola hartu dira kontuan jasangarritasun-faktoreen gaineko kontrako gorabeheren adierazleak?***

Kutxabank Gestionen fondoek -zorroa osatzen duten fondoek kudeatzailea- aztertzen dituzte eginiko inbertsioen kontrako jasangarritasun-inpaktuak, kontrako gorabeheren adierazleak bilakaeraren bidez. Ingurumen- edo gizarte-inpaktuak handitzeagatik edo konpromisoak edo politikak ez betetzeagatik kontrako gorabehera esanguratsua bat identifikatzen bada, horren arrazoiak ebaluatzen dira eta, beharrezkoa izanez gero, mitigazio- eta zuzenketa-ekintzak gauzatu. Neurri horiek izan daitezke inbertsio gehigarriek ez egitea, desinbertsioa, esposizioa murriztea edo behaketan jartzea. Neurriak osa daitezke, hala badagokio, jabetza aktiboa gauzatu, inplikazio-ekintzen bidez; hala nola elkarrizketa eta dagokion boto-eskubidea erabiltzea inbertsioaren jomuga den konpainiako partaidetzaren arabera.

### ***Nola egokitzen dira inbertsio jasangarriak Enpresa Multinazionalerako ELGAren Gidalerroetara eta enpresei eta giza eskubideei buruzko Nazio Batuen Printzipio Gidarietara?***

Kutxabank Gestioneak -zorroa osatzen duten fondoek kudeatzailea-, jaulkitzaileak aztertzean, kontuan hartzen ditu Enpresa Multinazionalerako ELGAren Gidalerroak (gobernuek enpresa multinazionaleri eginiko gomendioak, enpresa-jokabide arduratsu baterako printzipio eta arauak biltzen dituztenak) eta enpresei eta giza eskubideei buruzko Nazio Batuen Printzipio Gidariak, helburutzat dutenak esparru orokor bat eskaintzea, enpresa-jardueran giza eskubideen aurkako inpaktuen arriskuari aurre egiteko.

EBren taxonomiak ezartzen du «kalte esanguratsurik ez eragitea» printzipioa, zeinaren arabera taxonomiara egokitzen diren inbertsioek ez dieten kalte adierazgarriak egin behar EBren taxonomiaren helburuei, eta EBren irizpide espezifikoak jasotzen ditu.

«Kalte esanguratsurik ez eragitea» printzipioa aplikatzen zaizkie soil-soilik ingurumen-ikuspegitik jasangarriak diren jarduera ekonomikoetarako EBren irizpideak kontuan hartzen dituzten finantza-produktuaren azpiko inbertsioei. Finantza-produktuaren gainerakoaren azpiko inbertsioek ez dituzte kontuan hartzen ingurumen-ikuspegitik jasangarriak diren jarduera ekonomikoetarako EBren irizpideak. *Beste edozein inbertsio jasangarri ere ez die kalte esanguratsurik egin behar ezein ingurumen- edo gizarte-helbururi.*



## Kontuan hartzen ditu finantza-produktuak jasangarritasun-faktoreei loturiko kontrako gorabehera nagusiak?



**Bai** Kutxabank Gestionen fondoek -zorroa osatzen duten fondoek kudeatzailea- aintzat hartzen dituzte kontrako gorabehera nagusiak; hau da, inbertitzen den enpresek ingurumenean edo gizartearen eragiten dituzten inpaktu negatiboak. Hala, kontuan hartzen ditu EBren arabera garrantzitsuenak diren adierazleak, bai ingurumen-alorrean (gas-isuriak, biodibertsitatea, ura, hondakinak...) bai gizarte-arloan (giza eskubideak, armak, generoa...). Erabilitako metriken inpaktua inbertsio-erabakietan txertatzen da, bazterketa- edo balorazio-irizpide gisa, edo tematikien bitartez eta jabetza aktiboa gauzatzean, halako moldez, non kontrola daitekeen inbertsioen bizitzan zehar gizartearen edo ingurumenean izango den inpaktu negatiboa. Kontrako Gorabehera Nagusiei buruzko informazioa sartuko da fondo bakoitzaren Aldizkako Informazio Publikoan.

**Ez**

## Zer inbertsio-estrategia erabiltzen du finantza-produktu honek?

Zorroaren inbertsio-estrategiak prozesu zorrotz bati jarraitzen dio, uztartuz, alde batetik, inbertitzen duen fondoek irizpide ekonomiko-finantzarioen eta arrisku-irizpideen analisisia eta, bestetik, babestu nahi diren ingurumen- eta gizarte-ezaugarriak.

Zer fondotan inbertitu erabakitzean, kontuan hartuko da zorroaren xedea, aintzat harturik inbertsio guztien erabakitze-prozesuan erabiltzen diren irizpideak, nahiz eta fondoaren tipologia bakoitzari egokituak:

1. Baztertzailak: zorroa osatuko duten fondoek ez dute inbertituko arma eztabaidagarrien (pertsonen kontrako minak, barreiatze-bonbak, armamentu kimikoa edo biologikoa...) ekoizpenari lotutako aktiboetan, edo ingurumen-kalte larri-larriak, konponbide-neurririk hartu gabe, eragiten dituzten ekoizpenari loturikoetan. Gainera, ez da inbertituko erakunde jaulkitzaileetan, baldin eta lotura badute ustelkeria larriko jardunbideekin, adingabeen esplotazioarekin edo gerrek edota gatazkek eragindako norbanakoaren eskubideen urraketarekin; ezta egoitza paradisu fiskal batean duten jaulkitzaileekin ere.

**Inbertsio-estrategiak**, inbertsio-erabakiak hartzean, aintzat hartzen ditu inbertsio-helburuak eta arriskuarekiko tolerantzia bezalako faktoreak.

2. Baloraziokoak: Zorroa osatzen duten fondo guztiek egiten dute:
  - 2.1. Jaulkitzaileen ebaluazioa IGG arloan. Zorroak inbertitzen duen fondoek erabiltzen dute inbertsioak hautatzeko *best in class* metodologia, kontuan izanik adierazle batzuk. Horretarako, kudeatzaileak IGG rating bat esleitzen die inbertitzen duen edo inberti dezakeen jaulkitzaileei. Prozesu horretan, kudeatzaileak aztertzen du jaulkitzaileen jarduera, honako adierazle hauek erabilia, eta pisu bat edo beste ematen die, kontuan izanik zer sektoretakoak diren:
  - 2.2. Klima-aldaketari buruzko Pariseko Akordioaren helburuekin lerrotzea eta
  - 2.3. IGG eztabaidak kudeatzea (Sustainalytics-en albisteen eta eztabaiden bidez nagusiki).
3. Tematiketan oinarrituak, aurreko irizpide baloratiboak sendotzeko modu gisa: bonu berdeak, sozialak, inpaktu-inbertsioak, etab.
4. Errenta aldakorreko fondoan kasu zehatzean, jabetza aktibo bat gauzatzen dute beren eskubide politikoak erabilia (boto-politika), baita beren elkarrizketa-politikaren bitartez ere. Emaitzek jaulkitzaileen ebaluazioa IGG arloan berrelikatzen dute.

**Zeintzuk dira inbertsio-estrategiaren elementu lotesleak, finantza-produktu honek sustatzen dituen ingurumen- edo gizarte-ezaugarrietako bakoitza lortzeko inbertsioak hautatzeko erabiltzen direnak?**  
Elementu lotesleak dira:

- Bazterteak, jada aipatu direnak eta zorroaren inbertsio-unibertsioan eragiten dutenak.
- Zorroa osatzen duten fondoek barne-muga batzuk dituzte, inbertsio-muga handiagoa edo txikiagoa ematen dietenak jaulkitzaileei, eta baztertu ere egin ditzakete, IGG adierazleetan dituzten emaitzen arabera. Gaur egun, muga horiek dira:

Jaulkitzailearen kreditu-kalifikazioak alde aurretik definitutako inbertsio-mugak modulatuak dira; hau da, +/- % 20 gehigarri batean doitzen dira, aintzat harturik inbertsio-estrategiaren atalean azaldutako prozesuaren arabera esleitutako IGG kalifikazioa, eta, bonu berde eta sozialen kasuan, haien inbertsioa sustatzen da % 20 handituz jaulkitzaileari esleitutako muga.

IKEetan inbertitzeko, finkatutako barne-mugak direla eta, zorrotik IKEetan inbertitzen den zatiaren batezko besteko kalifikazioak 3 Morningstar puxikaren baliokidea edo goragokoa izan behar du, edo, bestela, inbertsio jasangarriaren batez bestekoak % 30 edo handiagoa.

**Gobernantza oneko** jardunbideen barruan daude kudeaketa oneko egiturak, langileekiko harremanak, langileen ordainsaria eta betebeharrak fiskalak betetzea

**Zein da inbertsio-estrategia hori aplikatu aurretik kontuan hartutako inbertsioen magnitudea murrizteko konprometitutako gutxieneko ehunekoa?**

Ez dago konpromisorik murrizteko inbertsioen magnitudea gutxieneko ehuneko batean.

**Zein da inbertitzen den enpresen gobernantza onaren jardunbideak ebaluatzen dituzten politikak?**


Zorroak inbertitzen du Kutxabank Gestionen fondoetan, jaulkitzaileak aztertzeko prozedurak dituen kudeatzailea (inbertitzen duen konpainien gobernantza korporatiboa ebaluatzen du prozedura horien bidez). Azterketa horren emaitzaren arabera, sozietateak erabaki dezake ez inbertitzea (kasuaren arabera, jaulkitzaile hori baztertuen zerrandan sartuta), desinbertitzea, esposizioa murriztea edo behaketan jartzea. Era berean, neurri horiek osa daitezke, hala badagokio, jabetza aktiboa gauzatzuz, inplikazio-ekintzen bidez; hala nola elkarrizketa eta dagokion boto-eskubidea erabiltzea, inbertsioaren jomuga den konpainiako partaidetzaren arabera.



## Zein da finantza-produktu honetarako aurreikusitako aktiboen esleipena?

Oro har, IGG ezaugarriak sustatzeko prozedurak erabiltzen dira zorroaren inbertsio guztietan. Salbuespena da honako hauetan inbertitzen duen fondoaren zatia: tresna deribatuak, dibertsifikaziorako inbertsioak edo daturik gabekoak, baita likidezia kudeatzeko inbertsioak ere. Beraz, zorroaren inbertsio gehienek bete egiten dute aipatutako xedea. Gainera, zorroak inbertsio jasagarrien % 35eko gutxiengo ehuneko du.

**Aktiboen esleipenak** adierazten du aktibo espezifikoetan eginiko inbertsioen ehunekoa.



- 1. zk. Ingurumen- edo gizarte-ezaugarrietara egokituak.** Barne hartzen ditu finantza-produktuak sustatzen dituen ingurumen- edo gizarte-ezaugarriak lortzeko erabiltzen diren finantza-produktuaren inbertsioak.
  - 2. zk. Beste batzuk.** Finantza-produktuaren gainerako inbertsioak barne hartzen ditu, ingurumen- edo gizarte-ezaugarrietara egokitzen ez direnak eta inbertsio jasagarritzat har ezin daitezkeenak.
- 1. Ingurumen- edo gizarte-ezaugarrietara egokituak** kategoriaren barruan daude:
- **1A Jasagarriak** azpikategoria; hots, ingurumen- edo gizarte-helburuak dituzten inbertsio jasagarriak.
  - **1B Beste ingurumen- edo gizarte-ezaugarriak** azpikategoria: inbertsio jasagarritzat har ezin daitezkeen eta ingurumen- edo gizarte-ezaugarrietara egokituta dauden inbertsioak.

- **Nola lortzen ditu deribatuak erabilerak finantza-produktuak sustatzen dituen ingurumen- edo gizarte-ezaugarriak?**  
Zorroak ez du inbertitzen deribatuetan, soil-soilik inbertsio-fondoetan.

Taxonomiara egokitzen diren jarduerak adierazten dira honako hauen ehuneko gisa:


- **Negozio-bolumena,** adierazten duena inbertitzen den enpresen jarduera ekologikoetatik datozen diru-sarreraren proportzioa.
- **Aktibo finkoko inbertsioa,** adierazten dituen inbertitzen den enpresen eginiko inbertsio ekologikoak; adibidez, ekonomia berde bateranzko trantsizioan.
- **Ustiapen-gastuak,** inbertitzen den enpresen ustiapen-jarduera ekologikoei dagozkienak.



### Zer neurritan egokitzen dira, gutxienez, ingurumen-helburu bat duten inbertsio jasagarriak EBren taxonomiara?

Zorroa osatzen duten fondoaren inbertsio jasagarriek lagun diezaiokete 2020/852 (EB) Erregelamenduan eta hura garatzeko gainerako xedapenetan jasotako EBren ingurumen-taxonomiaren arabera ("EBren taxonomia") jasagarritzat hartzen den jarduera ekonomiko bati edo batzuei. Bereziki, inbertsio horien helburua izan daiteke klima-aldaketa txikitzea edo aldaketa horretara egokitzea. Zorro honen inbertsioen eta EBren taxonomiaren arteko lerrotkatzearen gutxiengo ehuneko % 0 da.

**Bi grafiko hauetan, berdez ikus daiteke EBren taxonomiara egokitzen diren inbertsioen gutxiengo ehunekoak. Metodologia egokirik ez dagoenez bonu subiranoek taxonomiarekiko duten egokitzapena zehazteko (\*), lehen grafikoak erakusten du finantza-produktuaren inbertsio guztiei dagokien taxonomiarekiko egokitzapena, bonu subiranoak barne; bigarren grafikoak, berriz, bonu subiranoak ez diren finantza-produktuaren inbertsioei dagokien taxonomiarekiko egokitzapena.**



(\* ) Grafiko hauen ondorioetarako, "bonu subiranoek" esposizio subirano guztiak barne hartzen dituzte.

**Trantsizio-jarduerak** dira oraindik karbono-isuri txikiko alternatibarik ez duten jarduerak eta, besteak beste, emaitza onenekin bat datozen berotegi-efektuko gasen isuri-mailak dituztenak.

- **Zein da trantsizio-jardueretarako eta jarduera bideratzaileetarako inbertsioen gutxieneko proportzioa?** Zorroaren inbertsio jasagarriek lagun diezaioke 2020/852 (EB) Erregelamenduan eta hura garatzeko gainerako xedapenetan jasotako EBren ingurumen-taxonomiaren arabera ("EBren taxonomia") trantsizio-jardueratzat edo bideratzailetzat hartzen den jarduera ekonomiko bati edo batzuei. Zorroak trantsizio-jardueretan eta jarduera bideratzaileetan egiten dituen inbertsioen gutxieneko ehunekoa % 0 da.

**Jarduera bideratzaileek** aukera ematen dute zuzenean beste jarduera batzuek ingurumen-helburu bati ekarpen nabarmena egin diezaiozen.



Ingurumen-ikuspegitik jasagarriak diren inbertsioak dira, **kontuan hartzen ez dituztenak** EBren taxonomiaren arabera ingurumen-ikuspegitik jasagarriak diren jarduera ekonomikoetarako irizpideak.



**Zein da EBren taxonomiarekin bat ez datozen ingurumen-helburuak dituzten inbertsio jasagarrien gutxieneko proportzioa?**

EBren taxonomiarekin bat ez datozen ingurumen-helburuak dituzten inbertsio jasagarrien gutxieneko proportzioa ondarearen % 10 da.



**Zein da gizarte-ikuspegitik jasagarriak diren inbertsioen gutxieneko proportzioa?**

Gizarte-ikuspegitik jasagarriak diren inbertsioen gutxieneko proportzioa ondarearen % 10 da.



**Zer inbertsio sartzen dira "2. Beste batzuk" atalean eta zer helburu dute? Badago gutxieneko ingurumen-edo gizarte-bermerik?**

Oro har, IGG ezaugarriak sustatzeko prozedurak erabiltzen dira zorroaren inbertsio guztietan.

Gutxieneko ingurumen- edo gizarte-bermeak daude, zorroa osatzen duten fondoek bazterketa-irizpideak dituztelako (jada aipatuak). Irizpide horien arabera, ezin daiteke inbertitu Enpresa Multinazionalerako ELGaren Gidalerroak eta enpresei eta giza eskubideei buruzko Nazio Batuen Printzipio Gidariak betetzen ez dituzten jaulkitzaileetan, barne harturik Lanaren Nazioarteko Erakundearen lan-arloko oinarritzko printzipioei eta eskubideei buruzko Adierazpenean eta Giza Eskubideen Nazioarteko Gutunean aipatzen diren oinarritzko zortzi hitzarmenetan ezarritako printzipioak eta eskubideak.



**Non aurki daiteke produktuari buruzko online informazio gehiago?**

**Produktuari buruzko informazio espezifiko aurki daiteke webgune honetan:** "Jasagarritasun-arloko informazioa" atalean, [www.kutxabank.es](http://www.kutxabank.es).